

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Única. Queda derogado el Acuerdo 4/2020, de 17 de junio, del Consejo de la Facultad de Ingeniería por el que se deroga el Acuerdo 1/2019, de 20 de mayo, del Consejo de Facultad, por el que se modifica el Acuerdo 2/2017, de 23 de marzo, del Consejo de Facultad, por el que se adopta la Normativa de progreso y permanencia en los estudios de primer ciclo y de segundo ciclo impartidos en ella.

DISPOSICIONES FINALES

Primera. Las situaciones excepcionales no contempladas en el presente articulado serán resueltas por el Secretario General y, por su delegación, por el Vicesecretario General, previa presentación suscrita por el interesado de instancia razonada y justificada documentalmente.

Segunda. Esta normativa entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial de la Universidad de Deusto, si bien se aplicará en relación con las asignaturas matriculadas en el curso 2022-2023 y sucesivos.

Acuerdo 4/2022, de 20 de mayo de 2022, del Consejo de Facultad de la Facultad de Ciencias Sociales y Humanas, por el que se modifica el Acuerdo 1/2017, de 10 de abril, por el que se establece la Normativa Académica específica del título conjunto de Grado en Filosofía, Política y Economía por la Universidad de Deusto, la Universidad Pontificia Comillas y la Universitat Ramon Llull (promulgado por Orden del Decano 4/2022, de 21 de mayo)

Con motivo de la modificación de los estudios de Grado en Filosofía, Política y Economía que contempla la supresión de la modalidad de impartición no presencial, el Consejo de Facultad ha aprobado, con fecha 20 de mayo de 2022, las siguientes modificaciones:

Uno. Artículo 1

Se eliminan el punto 3 y el punto 4.

Por consiguiente, se renumeran los puntos del artículo de forma que el punto 5 y sus apartados 5.1.; 5.2.; 5.3. y 5.4. pasan a ser punto 3 y sus correspondientes apartados 3.1.; 3.2.; 3.3. y 3.4., respectivamente.

Dos. Se añade el Capítulo IV. Rotación entre las tres Universidades, con un único artículo 12.

Tres. Se realizará un texto refundido de la Normativa Académica Específica del título conjunto de Grado en Filosofía, Política y Economía por la Universidad de Deusto, la Universidad Pontificia Comillas y la Universitat Ramon Llull, que se acompañará como Anexo.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Bakarra. Indargabetuta geratzen da Ingeniaritza Fakultateko Kontseiluaren 4/2020 Erabakia, ekainaren 17koa. Erabaki horrek Fakultateko Kontseiluaren maiatzaren 20ko 1/2019 Erabakia indargabetu zuen, alegia, Fakultate horretako lehen zikloko eta bigarren zikloko ikasketetan aurrera egiteko eta jarraitzeko araudia onartu zuen Fakultateko Kontseiluaren martxoaren 23ko 2/2017 Erabakia aldatu zuena.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Aurreko artikuluetan aurreikusi ez diren aparteko egoerak idazkari nagusiak ebatziko ditu eta, eskuordetuta, idazkariorde nagusiak, interesdunak agiriz hornitutako eskabide arrazoitua aurkeztu ondoren.

Bigarrena. Araudi hau Deustuko Unibertsitateko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean. Nolanahi ere, 2022-2023 ikasturtetik aurrera matrikulatutako irakasgaietan aplikatuko da.

Gizarte eta Giza Zientzien Fakultateko Kontseiluaren 4/2022 Erabakia, 2022ko maiatzaren 20koa, Deustuko Unibertsitateko, Comillas Unibertsitate Pontifikaleko eta Ramon Llull Unibertsitateko Filosofia, Politika eta Ekonomiako Graduak baterako titularen berariazko araudi akademikoa ezartzen duen 1/2017 Erabakia, apirilaren 10ekoa, aldatzen duena (Dekanoaren maiatzaren 21eko 4/2022 Aginduaren bidez aldarrikatua)

Filosofia, Politika eta Ekonomiako Graduak ikasketetan modalitate ez-presentziala kentzea aurreikusten denez gero, Fakultateko Kontseiluak, 2022ko maiatzaren 20an, honako aldatuta hauek onartu zituen:

Bat. 1. artikulua

3. eta 4. puntuak kentzen dira.

Horrenbestez, artikuluen puntuak berriro zenbakituko dira, eta 5. puntua eta 5.1., 5.2., 5.3. eta 5.4. paragrafoak 3. puntu eta 3.1., 3.2., 3.3. eta 3.4. paragrafo bihurtuko dira, hurrenez hurren.

Bi. IV. kapitulua gehituko da, «Unibertsitateen arteko txandaketa» izenekoa, eta artikulua bakarra izango du, 12.a.

Hiru. Deustuko Unibertsitateko, Comillas Unibertsitate Pontifikaleko eta Ramon Llull Unibertsitateko Filosofia, Politika eta Ekonomiako Graduak baterako titularen berariazko araudi akademikoaren testu bategina egingo da, eta erantsiko gisa erantsiko da.

ANEXO

Acuerdo 4/2022, de 20 de mayo de 2022, del Consejo de Facultad de la Facultad de Ciencias Sociales y Humanas, por el que se modifica el Acuerdo 1/2017, de 10 de abril, por el que se establece la Normativa Académica específica del título conjunto de Grado en Filosofía, Política y Economía por la Universidad de Deusto, la Universidad Pontificia Comillas y la Universitat Ramon Llull (promulgado por Orden del Decano 4/2022, de 21 de mayo)

ERANSKINA

Gizarte eta Giza Zientzien Fakultateko Kontseiluaren 4/2022 Erabakia, 2022ko maiatzaren 20koa, Deustuko Unibertsitateko, Comillas Unibertsitate Pontifikaleko eta Ramon Llull Unibertsitateko Filosofia, Politika eta Ekonomiako Graduko baterako tituluaren berariazko araudi akademikoa ezartzen duen 1/2017 Erabakia, apirilaren 10ekoa, aldatzen duena (Dekanoaren maiatzaren 21eko 4/2022 Aginduaren bidez aldarrikatua)

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La puesta en marcha del título conjunto de Grado en Filosofía, Política y Economía por la Universidad de Deusto, la Universidad Pontificia Comillas y la Universitat Ramon Llull, requiere la elaboración de una Normativa Académica específica única para dicho Grado.

Por ello, si bien cada Universidad ha procedido a aprobar la presente normativa ateniéndose a sus procedimientos estatutarios y reglamentarios, así como a los marcos normativos de carácter general que rigen en cada una de ellas, se ha establecido de forma unitaria la regulación de las condiciones de acceso al estudio, la tipología de estudiantes, las normas de permanencia y requisitos de continuidad en el Grado, así como las condiciones de matrícula, convocatoria y paso de curso.

En su virtud, realizados los trámites preceptivos, a iniciativa del Decano de la Facultad de Ciencias Sociales y Humanas, tras la aprobación del Consejo de Facultad, SE DISPONE:

CAPÍTULO I

Ingreso y admisiones

Artículo 1

1. Para ser admitido como estudiante de primer curso en el título de Grado en Filosofía, Política y Economía, además de cumplir los requisitos exigidos en la legislación vigente para acceder a estudios universitarios oficiales y con validez en todo el territorio nacional, se requiere presentar la solicitud de ingreso en la forma y plazos determinados en cada una de las Universidades que imparten el grado y superar las pruebas de selección establecidas al efecto.

2. Los candidatos que obtengan resolución favorable a su solicitud, cumpliendo con todos los requisitos legales, así como con las condiciones de ingreso y los criterios de selección, recibirán la Carta de Admisión que les posibilitará realizar la matrícula en la universidad en la que la hubieran presentado.

3. El grado en las tres Universidades que lo imparten puede cursarse en régimen de dedicación a tiempo completo o a tiempo parcial:

- 3.1. **Estudiante en régimen de dedicación a tiempo completo:** quien solicita su ingreso en los estudios de Grado, recibe admisión y realiza matrícula de entre 36 y 60 créditos ECTS.
- 3.2. **Estudiante en régimen de dedicación a tiempo parcial:** quien solicita su ingreso en los estudios de Grado, recibe admisión y realiza matrícula de entre 6 y 30 créditos ECTS, sea por razón de necesidades educativas especiales, compatibilización con actividad laboral, atención familiar u otras.

ZIOEN AZALPENEA

Deustuko Unibertsitateko, Comillas Unibertsitate Pontifikaleko eta Ramon Llull Unibertsitateko Filosofia, Politika eta Ekonomiako Graduko baterako titulua martxan jartzeak gradu horretarako berariazko arau akademikoak sortu beharra dakar.

Horregatik bada, nahiz eta unibertsitate bakoitzak, bere estatutu eta araudietako prozedurei jarraituz eta ikastetxe bakoitzeko arau orokorrak kontuan harturik, araudi hau onartu, ikasketetan sartzeko baldintzak, ikasle motak, titulazioan jarraitzeko arauak, matrikula egiteko baldintzak, deialdiak eta hurrengo mailara pasatzeko arauak elkarren artean ezarri dira.

Horrenbestez, beharrezko izapideak beteta, Gizarte eta Giza Zientzien Fakultateko dekanoren ekimenez eta Fakultateko Kontseiluak onartuta, honako hau XEDATU DA:

I. KAPITULUA

Sarrera eta onarpena

1. artikulua

1. Filosofia, Politika eta Ekonomiako Graduko tituluaren lehenengo mailan onartua izateko, indarrean dagoen legeriak estatuko lurralde osoan balioa duten unibertsitate ikasketa ofizialetan sartzeko eskatzen dituen baldintzak betetzeaz gain, sarrera eskaera aurkeztu behar da gradua ematen duten hiru unibertsitateetan ezarritako epean eta forman, eta berariazko hautaketa probak gainditu behar dira.

2. Eskaerak aldeko ebazpena jasotzen badu —legezko eskakizun guztiak, ikasketetan sartzeko baldintzak eta ikasleak hautatzeko irizpideak betetzen dituelako—, ikasleak onarpen gutuna jasoko du. Onarpen gutun horrekin matrikula egin ahal izango du eskaera aurkeztu duen unibertsitatean.

3. Gradua denbora osoko edo denbora partzialeko dedikazioarekin egin daiteke hiru unibertsitateetan:

- 3.1. **Denbora osoko dedikazioa duen ikaslea:** graduko ikasketetan sarrera eskatu, onarpena jaso eta 36 eta 60 ECTS kreditu bitartean matrikulatzen dituena.
- 3.2. **Denbora partzialeko dedikazioa duen ikaslea:** graduko ikasketetan sarrera eskatu, onarpena jaso eta 6 eta 30 ECTS kreditu bitartean matrikulatzen dituena, hezkuntza premia bereziak dituelako, lanean dabilelako, familia zaindu behar duelako edo dena delakoagatik.

- 3.3. El estudiante que desee acogerse al régimen parcial de dedicación tendrá que presentar en la solicitud de ingreso las motivaciones que lo justifican.
- 3.4. Un estudiante puede cambiar el régimen de dedicación (de tiempo completo a tiempo parcial o viceversa) de un año académico a otro, si sus circunstancias personales varían, para lo cual deberá solicitarlo por escrito con anterioridad al inicio del plazo para realizar la matrícula a la autoridad competente, exponiendo las razones que lo motivan.

Artículo 2

1. La solicitud de ingreso para la incorporación en cursos superiores está condicionada a la existencia de plazas vacantes en el curso para el que se solicita dicho ingreso y al cumplimiento de los requisitos legales establecidos con carácter general, así como de los propios del presente Grado.
2. La solicitud deberá hacerse en los plazos establecidos al efecto presentando la documentación preceptiva entre la que, en todo caso, se adjuntará certificación académica oficial de los estudios efectuados, así como una exposición de las razones que motivan el traslado de Universidad.
3. Los estudiantes procedentes de otras universidades podrán ser admitidos aun cuando no tengan superadas todas las materias y créditos correspondientes al primer curso del plan de estudios, siempre y cuando se puedan reconocer al menos 30 créditos del plan de estudios para el que solicitan ingreso.
4. Asimismo, el traslado para obtener el título de Grado por las Universidades Pontificia Comillas, Deusto y Ramon Llull exige que se realice matrícula de al menos un 25% de los créditos del presente título.

CAPÍTULO II

Continuidad de los estudios y permanencia en el grado

Artículo 3

La permanencia del estudiante en las tres Universidades está condicionada por su aptitud, aprovechamiento personal y cumplimiento de los deberes universitarios, atendiendo al marco legal vigente.

Artículo 4

1. Los estudiantes matriculados en el régimen de dedicación a tiempo completo que cursen el Grado dispondrán de un máximo de 7 cursos académicos para finalizar el Grado.
2. Los estudiantes matriculados en régimen de dedicación a tiempo parcial podrán superar el límite máximo de los 7 cursos académicos, siempre que no agoten el límite máximo de convocatorias permitidas y siempre y cuando no hayan transcurrido más de 10 años desde su primera matrícula.

Artículo 5

La condición de estudiantes se pierde por alguna de las situaciones siguientes:

- a) Finalización de los estudios y obtención del presente título de Grado.
- b) Traslado del expediente a otra Universidad, a petición expresa del estudiante.
- c) Interrupción de los estudios por decisión del estudiante durante dos años consecutivos.

- 3.3. Dedicazio partziala aukeratu nahi duen ikasleak horretarako arrazoiak azaldu beharko ditu sarrera eskaeran.
- 3.4. Ikasleak dedikazio mota (denbora osokotik denbora partzialekora edo alderantziz) alda dezake ikasturte batetik bestera, bere egoera pertsonala aldatzen bada. Aldatzeko eskaera idatzia egin beharko dio eskumena duen agintariari, matrikula epea hasi aurretik, zer arrazoi dituen azalduz.

2. artikulua

1. Lehenengo mailatik goragoko mailetan sartzeko, mailan tokia egon beharko da eta eskatzaileak legeriak ezarritako baldintza orokorrak eta gradu honetako berariazko eskakizunak bete beharko ditu.
2. Eskaera ezarrita dauden epeen barruan aurkeztu beharko da, eskatzen diren agiriekin batera. Besteak beste, egindako ikasketen ziurtagiri ofiziala erantsiko da, baita unibertsitatez zergatik aldatu nahi den ere.
3. Beste unibertsitate batzuetako ikasleak onartu ahal izango dira, ikasketa planeko lehenengo mailari dagozkion gai eta kreditu guztiak gaindituta ez izan arren, betiere gradu honen ikasketa planeko 30 kreditu gutxienez aitortuta edukiz gero.
4. Era berean, Comillas Unibertsitate Pontifikaleko, Deustuko Unibertsitateko eta Ramon Llull Unibertsitateko graduako titulua eskuratzeko lekualdaketa egiteko, tituluaren kredituen % 25 gutxienez matrikulatu behar dira.

II. KAPITULUA

Ikasketak bukatzeko epemuga eta graduan jarraitzeko baldintzak

3. artikulua

Ikasleak hiru unibertsitateetan jarraitu ahal izango du, gai bada, aprobetxamendu pertsonala badu eta unibertsitateko eginkizunak betetzen baditu, indarrean dagoen legeriaren arabera.

4. artikulua

1. Denbora osoko dedikazioan matrikulatuta dauden ikasleek 7 ikasturte izango dituzte gehienez gradua amaitzeko.
2. Denbora partzialeko dedikazioan matrikulatuta dauden ikasleek 7 ikasturteko gehieneko muga gainditu ahal izango dute, gehieneko deialdi kopurua agortu ezik eta lehenengoz matrikula egin zutenetik 10 urte baino gehiago pasatu barik.

5. artikulua

Ikasle izateari utziko zaio arrazoi hauetariko batengatik:

- a) Ikasleak ikasketak amaitu eta graduako titulua eskuratu duelako.
- b) Beste unibertsitate batera espedientea aldatu delako, ikasleak berak eskatuta.
- c) Ikasleak ikasketak etetea erabaki duelako ondoz ondoko bi urtetan.

- d) Sanción disciplinaria que implique su expulsión, una vez que la resolución sea firme.
 - e) Imposibilidad de continuar los estudios comenzados, como consecuencia de haber agotado el número máximo de convocatorias establecidas para las asignaturas en esta Normativa.
 - f) Incumplimiento de los requisitos de permanencia en primer curso o cursos superiores, establecidos en esta Normativa.
 - g) Incumplimiento de las obligaciones económicas contraídas con las Universidades.
 - h) Baja voluntaria.
- d) Kaleratzea dakarren diziplina zigor batengatik, ebazpena behin betikoa bada.
 - e) Hasitako ikasketak jarraitzeko ezintasunagatik, ikasleak araudi honetan ezarritako gehieneko deialdi kopurua agortu duelako.
 - f) Lehenengo mailan edo goragoko mailetan jarraitzeko, araudi honetan ezarritako eskakizunak betetzen ez dituelako.
 - g) Unibertsitatearekin ekonomia betebeharrak ez betetzeagatik.
 - h) Borondatezko bajagatik.

CAPÍTULO III

Matrícula, convocatorias y paso de curso

Artículo 6

1. La unidad administrativa de matrícula es la asignatura, por lo que la matrícula mínima, con carácter general, es de 6 créditos ECTS.
2. La matrícula se realiza al inicio de cada año académico para ambos semestres. Al inicio de cada semestre se abrirá un plazo de solicitud de modificación de matrícula, en el primero para las asignaturas de ambos semestres, en el segundo para dicho semestre (incluida la posibilidad de nueva matrícula para el segundo semestre). El estudiante deberá presentar solicitud debidamente razonada, que será resuelta por el órgano competente.
3. La matrícula de un curso completo será de 60 créditos ECTS, no pudiendo exceder de los 60 créditos de nueva matriculación.
4. El cómputo de los créditos de los que se puede matricular el estudiante en cada curso, tanto en régimen de dedicación a tiempo completo como a tiempo parcial, se realizará teniendo en cuenta la matrícula de asignaturas pendientes y las de nueva matriculación.
5. Cuando el estudiante pertenezca al régimen de dedicación a tiempo parcial deberá contar para la matrícula de las asignaturas con la asesoría y visto bueno del tutor o coordinador de curso.
6. La matrícula del plan de estudios debe seguir la secuencia anual fijada en el Proyecto Formativo (en la estructura de dicho plan) sin que sea posible matricular una asignatura sin haberlo hecho con anterioridad o simultáneamente de las precedentes.
7. Será necesario renovar la matrícula de las asignaturas pendientes de carácter obligatorio (tipos FB, OB y TFG), si las hubiera, para poder realizar matrícula de nuevas asignaturas.
8. No podrán ser nuevamente matriculados los créditos ya superados o los que figuren como adaptados o reconocidos en el expediente del estudiante.

Artículo 7

1. La matrícula de una asignatura da derecho a dos convocatorias de evaluación, con calificación final, una ordinaria y otra extraordinaria, excepto si en la convocatoria ordinaria se ha agotado el número máximo de convocatorias permitido en esta Normativa.
2. Todo estudiante tiene derecho a cuatro convocatorias consecutivas en cada asignatura siempre que no haya perdido la condición de estudiante con arreglo a lo dispuesto en el artículo 5 de esta Normativa.

III. KAPITULUA

Matrikula, deialdiak eta hurrengo mailara pasatzea

6. artikulua

1. Irakasgaia da matrikulako unitate administratiboa; beraz, normalean, gutxieneko matrikula 6 ECTS kreditu izango da.
2. Matrikula ikasturtearen hasieran egiten da bi seihilekoetarako. Seihileko bakoitzaren hasieran, matrikula aldatzeko epea zabalduko da, lehenengo seihilekoan bi seihilekoetako irakasgaietarako eta bigarrenean, seihileko horretako irakasgaietarako (bigarren seihilekoan matrikula berria ere egin daiteke). Ikasleak arrazoitutako eskaera aurkeztu beharko du, eta organo eskudunak ebaziko du.
3. Ikasturte osoko matrikula 60 ECTS kreditukoa da. Ezin izango da 60 kreditu berri baino gehiago matrikulatu.
4. Ikasleak ikasturte bakoitzean zenbat kreditu matrikulatu ahal dituen kalkulatzeko, atzeratutako irakasgaiak eta berriak hartuko dira kontuan, bai dedikazio osoan, bai partzialean.
5. Ikaslea denbora partzialekoa bada, tutorearen edo koordinatzailearen aholkua eta oniritzia beharko ditu, irakasgaien matrikula egiteko.
6. Ikasketa planaren matrikula hezkuntza proiektuan (plan horren egituran) ezarritako hurrenkeran egin behar da, eta ezin da irakasgai baten matrikula egin, aurreko irakasgaietan lehenago edo aldi berean matrikulatu gabe.
7. Irakasgai berriak matrikulatzeko, derrigorrezko irakasgai (onarrizko prestakuntzakoak, nahitaezkoak eta gradu amaierako lana) atzeratuen matrikula berri beharko da, halakorik edukiz gero.
8. Ezin izango dira berriro matrikulatu gainditutako kredituak, edo ikaslearen espedientean egokitutako edo aitortutako kreditu gisa ageri direnak.

7. artikulua

1. Irakasgai batean matrikulatzeak bi ebaluazio deialdi izateko eskubidea dakar: ohikoa eta ezohikoa, araudi honetan ezarritako gehieneko deialdi kopurua ohiko deialdian agortu ezik.
2. Ikasle orok du ondoz ondoko lau deialdi izateko eskubidea, baldin eta ikasle izaera galdu ez badu, araudi honetako 5. artikuluan ezarritakoaren arabera.

3. Las convocatorias de evaluación se computarán sucesivamente siempre que se haya realizado la matrícula y no se ejerza el derecho a la anulación o renuncia de la convocatoria.

4. En los cursos superiores a primero el órgano competente podrá conceder dos convocatorias adicionales, a solicitud escrita y razonada del estudiante en un máximo de cuatro asignaturas a lo largo de sus estudios en la titulación.

5. En todos los cursos y circunstancias contempladas en esta Normativa la evaluación de las dos últimas convocatorias, serán competencia de un tribunal designado por el órgano competente.

Artículo 8

1. En los plazos establecidos al efecto, el estudiante podrá solicitar, en escrito debidamente motivado, la anulación o renuncia al derecho de convocatoria.

2. De las resoluciones a que se refiere el apartado anterior se dará cuenta a todas las instancias afectadas.

Artículo 9

1. El estudiante matriculado en el primer curso que no supere en el año académico correspondiente, entre las convocatorias ordinaria y extraordinaria, 12 ECTS en el caso de estudiantes en régimen de dedicación a tiempo completo y 6 ECTS en el caso de estudiantes en régimen de dedicación a tiempo parcial, causará baja en los estudios.

2. El estudiante matriculado que, tras la celebración de la convocatoria extraordinaria, tenga asignaturas pendientes, pero haya superado al menos 42 ECTS del curso en que estuviere matriculado, podrá matricularse de asignaturas del siguiente curso hasta un límite de 78 ECTS.

3. Podrá también matricular de asignaturas de un curso superior hasta un límite máximo de 60 ECTS, el estudiante que haya superado un mínimo de 36 ECTS del curso en el que está matriculado y no tenga asignaturas pendientes previamente matriculadas.

4. Los estudiantes en régimen de dedicación a tiempo completo deberán superar el primer curso, como máximo, en 3 años académicos consecutivos.

Artículo 10

1. De acuerdo con los procedimientos y plazos establecidos para el abandono del Grado un estudiante podrá solicitar la anulación de su matrícula en el Grado mediante instancia dirigida a la autoridad competente. La anulación académica tiene efectos en el expediente del estudiante; los reintegros de tasas y exenciones de cuotas a que hubiera lugar se registrarán según lo establecido por los órganos competentes y que se publicarán en las instrucciones de matrícula de cada año.

2. La anulación comprenderá la totalidad de asignaturas matriculada para uno o los dos semestres, salvo en aquellos casos en que, por causas excepcionales, de forma individual y razonada el estudiante solicite la anulación de una o varias asignaturas.

Artículo 11

El reconocimiento y la transferencia de créditos se llevarán a cabo conforme a las disposiciones reguladas en el marco legislativo vigente, así como a la normativa específica desarrollada al efecto.

3. Ebaluazio deialdiak ondoz ondokoak izango dira, ikasleak matrikula egin badu eta deialdia deuseztatzeko edo uko egiteko eskubidea erabiltzen ez badu.

4. Lehenengo mailatik gorako mailetan, beste deialdi bi eman ahal izango dizkio organo eskudunak, ikasleak idatziz eta arrazoiz hornituta eskatzen badu, gehienez ere lau irakasgaitan titulazioan zehar.

5. Araudi honetan jasotzen diren maila eta egoera guztietan, azken bi deialdietako ebaluazioa eskumena duen organoak izendatutako epaimahaiaren esku egongo da.

8. artikulua

1. Ikasleak deialdi bat deuseztatu ahal izango du edo uko egin ahal izango dio, ezarritako epean, idatziz eta behar den bezala arrazoituta.

2. Aurreko ataleko ebazpenen berri emango zaie dagokien guztiei.

9. artikulua

1. Lehenengo mailan matrikulatu eta ikasturte horretan, ohiko eta ezohiko deialdien artean, denbora osoko dedikazioko ikasleak 12 ECTS gainditzen ez baditu eta denbora partzialeko dedikazioko ikasleak 6 ECTS gainditzen ez baditu, baja izango da ikasketetan.

2. Ikasle batek, ezohiko deialdiaren ondoren, irakasgairen bat gainditu gabe badu baina matrikulatuta dagoen mailako 42 ECTS gutxienez gaindituta baditu, hurrengo mailako irakasgaiak matrikulatu ditzake, 78 ECTS gehienez.

3. Ikasle batek matrikulatuta dagoen mailako 36 ECTS gutxienez gainditu baditu eta aurretiaz matrikulatutako irakasgairik ez badu gainditu gabe, hurrengo mailako irakasgaiak matrikulatu ditzake, 60 ECTS gehienez.

4. Denbora osoko dedikazioko ikasleek ondoz ondoko 3 ikasturte izango dituzte gehienez lehenengo maila osoa gainditzeko.

10. artikulua

1. Gradua uzteko ezarritako prozedura eta epeak gogoan harturik, ikasleak graduako matrikula deuseztatzeko eskatu ahal izango du, eskumena duen agintariari zuzendutako instantzia bidez. Deuseztatze akademikoak eraginak ditu ikaslearen espedienteetan; organo eskudunek ezarriko dute zelan egingo diren tasen itzulketa eta kuoten salbuespena eta urtero argitaratuko da hori matrikula egiteko argibideetan.

2. Matrikula deuseztatzeko eskatuz gero, seihileko baterako edo bietarako matrikulatutako irakasgai guztiak deuseztatuko dira, salbu eta, aparteko arrazoiak direla eta (ikasleak banaka eta behar den bezala arrazoituta), irakasgai bat edo batzuk deuseztatzeko eskatzen badu.

11. artikulua

Kredituen aitortpena eta transferentzia indarrean dagoen legeria orokorrean eta araudi berezietan ezarritakoaren arabera egingo dira.

CAPÍTULO IV**Rotación entre las tres universidades****Artículo 12**

1. Los estudiantes podrán solicitar una rotación entre las 3 universidades que imparten el título, de manera que puedan cursar una parte del grado en cualquiera de las dos universidades distintas a la de la universidad en la que ha sido admitido.
2. La rotación tendrá lugar en el tercer curso del grado, pudiendo elegir una estancia de un semestre, tanto el primero como el segundo, así como una estancia de curso completo.
3. La solicitud se formalizará al finalizar el 3.º semestre del curso, habiendo cumplido el requisito de tener superados todos los créditos de los tres primeros semestres.
4. La rotación se concederá siempre que acrediten también la superación del 4.º semestre.

DISPOSICIÓN ADICIONAL**Única. Referencias genéricas**

Todas las referencias a cargos, puestos o personas para los que en esta normativa se utiliza la forma de masculino genérico deben entenderse aplicables, indistintamente, a mujeres y hombres.

DISPOSICIONES FINALES**Primera. Situaciones excepcionales**

Para la resolución de cuestiones que surjan en la interpretación o aplicación de esta Normativa, así como para la adopción de medidas en los casos y situaciones no previstas en ellas, prevalecerá lo establecido en el marco legislativo universitario.

Segunda. Entrada en vigor

La presente normativa entrará en vigor al día siguiente de su publicación en la forma que esté determinado en las Universidades que imparten este título.

Órdenes

Orden del Rector 5/2022, de 11 de marzo, por la que se modifica la Orden del Rector 2/2017, de 3 de marzo, por la que se aprueba el Protocolo de la Universidad de Deusto para la prevención, evaluación e intervención en las situaciones de acoso entre estudiantes

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

A través de la presente Orden del Rector se introducen diversas modificaciones en el Protocolo de la Universidad de Deusto para la prevención, evaluación e intervención en las situaciones de acoso entre estudiantes que tienen por objeto actualizar su articulado.

Por todo ello, DISPONGO:

IV. KAPITULUA**Hiru unibertsitateen arteko txandakatzea****12. artikulua**

1. Ikasleak titulua ematen duten 3 unibertsitateen arteko txandakatzea eskatu ahal izango du, hartara, graduaren zati bat onartua izan den unibertsitateetik kanpo egin ahal izateko, beste bi unibertsitateetako edozeinetan.
2. Txandakatzea graduako hirugarren mailan egingo da. Lehen seihilekoa, bigarrena edo ikasturte osoko egonaldia aukeratu daiteke.
3. Eskabidea hirugarren seihilekoa bukatzean egingo da. Horretarako, lehen hiru seihilekoetako kreditu guztiak gaindituta eduki behar dira.
4. Txandakatzea onartu dakien, ikasleek 4. seihilekoa ere gainditu dutela egiaztatu beharko badute.

AZKEN XEDAPENAK**Lehenengoa. Egoera bereziak**

Araudi hau interpretatzean edo aplikatzean sortutako arazoak ebazteko eta bertan aurreikusi gabeko kasu eta egoeretan neurriak hartzeko, unibertsitateko legeria orokorrean ezarritakoa nagusituko da.

Bigarrena. Indarrean sartzea

Araudi hau titulua ematen duten unibertsitateetan ezarrita dagoen eran argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

Aginduak

Errektorearen 5/2022 Agindua, martxoaren 11koa, Deustuko Unibertsitateko ikasleen arteko jazarpen egoerak prebenitu, ebaluatu eta halakoetan esku hartzeko protokoloa onartu zuen Errektorearen 2/2017 Agindua, martxoaren 3koa, aldatzen duena.

ZIOEN AZALPENA

Errektorearen agindu honen bidez, zenbait aldaketa egiten dira Deustuko Unibertsitateko ikasleen arteko jazarpen egoerak prebenitu, ebaluatu eta halakoetan esku hartzeko protokoloan, hain zuzen ere protokoloaren artikulua eguneratzeko.

Horregatik guztiagatik, hau XEDATU DUT: